



**Arartekoaren 2019S-2197-18 EBAZPENA, 2020ko otsailaren 11koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio baliogabetu dezala premiamendu-bidera igortzea hautemandako gabezi formalengatik diru-sarrerak bermatzeko errenta nahiz etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako prestazioa ekonomikoak itzultzeko espedientea.**

### Aurrekariak

1-. Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan. Kexa horren arazoia zen ez zegoela ados diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako prestazio osagarrien prestazio ekonomikoak itzultzeko espedientea betearazpen-bidera bidaltzearekin, borondatezko epean ez ordaintzeagatik.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren premiamenduzko probidentzia bat jakinarazi zioten 2018ko uztailaren 26an. Horren arabera, jakin zuen Lanbidek eskatu zuela diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria itzuli behar zituela adierazten zuen ebazpena betearazteko.

Zorraren hasierako zenbatekoa 16.312,75 euro zen, eta berrikusitako epea 2013ko urriaren 23tik 2015eko abuztuaren 31ra artekoa. Zorra eragin zuen arazoia zen, epealdi horretan, bere bizikidetzta-unitatean laneko diru-sarrerak jaso izana; Lanbideren ustez, diru-sarrera horiek ez zituen kontuan hartu 2013an kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortu zizkionean.

Lanbidek, 2016ko ekainaren 28an jakinarazitako ebazpenaren bidez, interesdunak zenbateko hori ordaindu behar zuela ezarri zuen, eta, ebazpen horretan nominatik 160,66 euro deskontatuko zizkietela. Interesdunak kexa-idazkian adierazi zuen "*Nominako konpentsazioa onartzea*" izeneko inprimakiaren bidez berariaz onartu zuela itzultzeko ebazpenean aurreratzen zen kuota hori deskontatzea.

Hala ere, inolako kuotarik deskontatu aurretik, ekainaren 21eko berrikuspen-ebazpenaren bidez, enplegu-erakunde autonomoak interesdunaren prestazioak iraungi zituen, haien titular izaten jarraitzeko gehieneko diru-sarrerak gainditzeagatik, hain zuzen ere, lanaren bidez aitortu zituen diru-sarrerengatik. Bi urte geroago, 2018ko uztailan, kexagileak kexa honen xede den premiamenduzko probidentziaren jakinarazpena jaso zuen.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailarekin zatikatzeko akordioa lortu ostean, kexagileak hilero 149,56 euroko kuota ordaintzen du zorra kitzatze aldera.





2-. Kexa izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak informazioa eskatu zion Lanbideri erreklamazioaren xedearekin zerikusia duten inguruabarren berri emateko eskatzen. Zehazki, xehetasun gehiago eskatu ziren honako puntu hauei buruz:

- a) *“Lehenik eta behin, oro har, Arartekoak ez daki Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila bide betearazlea nola eskatzen ari den; beraz, idazki honen bidez jarduketa horri buruzko azalpen bat eskatzen da. Alde horretatik, arren, eska iezaiozu Ogasun eta Ekonomia Sailari beharrezkoa den informazioa.*
- b) *Azaldutako kasuari dagokionez, honako hau argitzea: herritarrari eman al zaion Lanbiden bertan borondatezko bidean zorra ordaintzeko moduari buruzko informazioa, bai eta azkenean deskontua ez egiteko arrazoiei buruzkoa ere”.*

3-. Ondoren, egindako eskaerari erantzunez, Lanbideren erantzuna jaso genuen erakunde honetan:

*“Gauzak horrela, aintzat hartuta itzulketa-jakinarazpena prestazioa jasotzeko eskubidea eten baino lehen egin zela, bidegabeki jasotako zenbatekoa itzultzeko ezarritako prozedura bere DSBE/EPO nominaren konpentsazioa da. Interesdunak badakienez Lanbiderekin duen zorra finkoa dela eta ez duela DSBE prestazioa jasotzen, zor osoa ordaintzea (ordainketa-gutuna) edo zorra zatikatzea eska dezake, betiere Lanbidek bere egoeraren arabera ezarritako moduan”.*

4-. Jasotako erantzuna nahikoa ez zela iritzita, Arartekoak informazioa eskatu zuen bigarren aldiz, eta eskaera horretan bi gai nabarmendu zituen:

- a) *Berriz ere eskatu nahi dizugu jakinarazteko nola ari den eskatzen Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila betearazpen-bidera jotzeko, batik bat interesdunak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateari utzi eta ohiko bizilekua aldatzen duten kasuetan. Hori dela eta, idazki honen bidez, jarduketa horri buruzko azalpena emateko eskatzen dizugu. Halaber, horri lotuta, eskatzen dizut jakinarazteko zer jarduketa egin dituen Ogasun eta Ekonomia Sailak.*
- b) *Azaldutako kasuari lotuta, mesedez, eman informazio gehiago kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateari utzitakoan Lanbidek egindako jarduketari buruz. Hain zuzen ere, esan enplegu-erakunde autonomoak interesdunak aipatu duen paragrafoan hartutako konpromisoa bete ote zuen — dirudienez, itzulketa-ebazpenetan ageri ohi zen—; zehazki, eskatzen dizut eskubidea iraungitakoan ordaintzeke geratu zen zenbatekoaren berri (interesdunari prestazioak itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpenean ageri zena) ematen zuen komunikazioaren kopia igortzeko.*

5-. Azkenik, bigarren idazki bat sartu zen erakunde honen erregistroan, Lanbidek erakundearen azken eskaerari erantzuteko.





Zuzendari nagusiaren idazkiak honela zioen:

*“Berriro ere bidaltzen dizugu aurreko informazio eskaeran eman genizun erantzuna, 2016/REI/002160 itzulera-espedienteari buruzkoa, zeinetan adierazten zen ebazpena DSBE prestazioa iraungi baino lehen jakinarazi zela eta XXX interesdunak zorraren itzulera osoa eska zezakeela ordainketa gutunaren bidez. Horrez gain, zorra zatitzea ere eska zezakeen, Lanbidek haren egoera pertsonalaren arabera zehazten duen moduan. Zorra bide exekutibora igaro zela jakin ondoren, XXX Lanbidera joan zen.*

*Kudeaketa ekonomikoko zerbitzutik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 31ko 212/1998 DEKRETUA kontuan hartuta, behin borondateko ordainketa-epea igaro ondoren prozesua bide exekutibora igaroko da, zorraren jakinarazpen berriak bidali beharrik gabe”.*

Hortaz, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:

### Gogoetak

1-. Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen (Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa) 24. eta 39. artikuluek Lanbideri ematen dioten berrikuspen-ahalmenaren arabera, enplegu erakunde autonomoak kexagilearen espedientea berrikusi zuen, eta zehaztu zuen hark aitortutako diru-sarrerak araudian aurreikusitako gehienekoak gainditzen zituztela. Beraz, prestazioa iraungitzea erabaki zuen, baina horren aurretik 2013ko urritik 2015eko abuztua bitarte jasotako zenbateko guztia itzuli behar zuela adierazi zuen. Zehazki, itzultzeko betebeharra 2016ko ekainaren 2ko ebazpenaren bidez agindu zen; iraungitzea, berriz, urte bereko ekainaren 21eko ebazpenaren bidez.

Kexagileak ez zuen kexa-idazkian desadostasunik agertu zorra eragin zuten arazoiekin; izan ere, aipatutako epean, bere bizikidetz-unitateak laneko diru-sarrerak jaso zituen, administrazio eskudunak kontuan hartu ez zituenak. Hala ere, borondatezko epean ordainketa egiteko moduari buruzko jakinarazpenik jaso ez izana salatu zuen.

Horren ondorioz, ez zegoen errekararekin ados zorra premiamendu-bidetik ez ordaintzeagatik eta, horrek zenbatekoa igotzea ekarri zuen, hasierako 16.312,75 eurotik 17.947,73 eurora.

Lanbidek erakunde honi bidalitako idazkietan azpimarratzen duenez, itzultzeko betebeharraren adierazpena administrazioaren eta administratuaren arteko harremana amaitu baino lehenagokoa izan zen; hortaz, ez dago zalantzarik interesdunak zorra zegoela eta hura irmoa zela jakin zuela, eta, beraz, *motu proprio*, betebeharra betetzeko behar adina kudeaketa egin behar izan zituela.





Zuzendari nagusiak bere jarrera osatzeko, nahitaezko diru-bilketaren araudira jo du, eta adierazi du abuztuaren 31ko 212/1998 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duenak, honako hau xedatzen duela: borondatez ordaintzeko epea igaro ondoren, betearazpen-bidera bidaltzen da, eta ez da zorraren jakinarazpen berririk bidali behar.

2-. Premiamenduzko bidea ordenamendu juridikoak herri-administrazioari ematen dion auto-babesaren emaitza da. Bide horren helburua da, berariazko administrazio-prozeduren bidez, administratuek bete gabe dituzten betebeharrak eraginkortasunez betetzea, bereziki betearazteari dagokionez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zorrak betearazteko jarraitu beharreko prozedura arautzen du.

Erregelamenduaren 20. artikulua honako hau dio: *“Erregelamendu honetan exigitutako epeetan eta baldintzetan ez ordaintzeak premiamendu bidezko prozedura ekar dezake, salbuetsi egingo dela Erregelamendu honetako 48. ataleko 2. lerroaldean jasotakoa. Horrek, ordenamendu juridikoan xedatutako ondorioak izango ditu; ordainketarako obligazioa dutenen aurka erabiliko ditu Administrazioak ondoriook”.*

Horri dagokionez, Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenak azpimarratu du iraugitze-prozedura itzultzeko betebeharra adierazten zuen ebazpenaren ondoren gertatu zela, eta, beraz, lehen ere adierazi den moduan, interesdunak berak eskatuta bete behar zuela ebazpena.

Hala ere, Arartekoak uste du interesgarria dela aipatzea, arau-multzo bereko 59.1 artikulua araberaren arabera, betearazpen-aldia honela hasten dela:

*a) **Aldez aurretik jakinarazitako zorretarako, borondatezko aldiaren dirua sartzeko jarritako epemugaren hurrengo egunean, dirusartze hori egin ez bada edo ordainketa geroratzeko edo zatitzeko edo zorra konpentsatzeko eskabiderik egon ez bada.** b) Deklarazio-likidazioz edo autolikidazioz ingesatu beharreko zorrei dagokienez, hauek epearen barruan aurkeztu baina erabateko edo zati bateko dirusarrerara egin ez bada, eta ordainketa geroratzeko edo zatitzeko edo zorra konpentsatzeko eskabiderik egin ez bada, dirusarrerara hori egiteko ezarritako arauzko epea amaitzen denean. c) Dirusarrerarik gabe edo ordainketa geroratu edo zatitzeko edo zorra konpentsatzeko eskabiderik gabe garaiz kanpo egindako deklarazio-likidazioetarako, aipatutako hori aurkezten denean”.*





Aurrekariei buruzko atalean zehaztu den moduan, kexagileak ziurtatu du **berariaz onartu** duela itzultzeko ebazpenean aurreratzen zen **160,66 euroko kuota deskontatzea "nominan konpentsazioa onartzeko" formularioaren bidez.**

Lanbidek, dena den, ez dio argitu erakunde honi badakien eskaera hori egin zenik.

3-. Bestalde, erakunde honen iritziz, ordaintzera behartuta dagoenaren jarduketa behar bezain arduratsua izan zen ondorioztatzeko, Lanbiden ordaintzeke dagoen zorra ez ordaintzeagatik, garrantzitsua da alde aurretik zehaztea azken administrazio horrek behar beste informazio eman zuen ordainketa hori egiteko moduari buruz, prestazioak ez berritzea, etetea edo, kasu honetan, iraungitzea adierazi ondoren.

Ildo horretan, 16.312,75 euro itzuli behar zituela adierazten zuen ebazpenaren bidez, kexagileari jakinarazi zion zenbateko hori itzuliko zela kexagilearen nominatik (prestazioa) deskontatuz, hau da, 160,66 euro hilean.

Zehazki, xedapen hau sartu zen: *"Goian adierazitako kopurua itzuli ahal izateko, DBE/EPOko nominatik 160,66 € konpentsatuko zaizkio hileroko zor osoa ordaindu arte. Hilen batean jasotako nomina txikiagoa bada zenbateko hori baino, jasotako nomina guztia konpentsatuko da. **Ebazpen horren jakinarazpena egin, eta hurrengo nominan hasiko da zorra konpentsatzen.** Bizikidetzaren unitateak aldatzeak konpentsatu beharreko hileko zenbatekoa aldatzea eragin dezake. Gogoan izan Lanbideri gehienez 15 eguneko epean jakinarazi behar dizkiozula bizikidetzaren unitateari eragiten dioten aldaketak".*

Aipatu den moduan, Lanbidek ez zuen kuota bat bera ere deskontatu borondatezko epean, egun batzuk geroago prestazioak iraungitzeko erabakia hartu baitzuen; beraz, administrazio-harremana amaitu zen.

Aipatu berri den xedapenean beste gai batzuei buruzko berariazko informazioa eman zen, esaterako: deskontuarekin jarraituko zela zor osoa ordaindu arte, hileroko kuota itzulketa-kuota baino txikiagoa izanez gero nola jokatuko zen, edo bizikidetzaren unitatearen osieran gertatutako aldaketak jakinarazteko betebeharra; **enplegu-erakunde autonomoak, baina, ez zuen inolako xedapenik jaso prestazioen titular izateari uzten bazaio ordainketa osoa egin baino lehen.**

Arartekoak badaki prestazioak itzultzeko ebazpenetan, orain, aurretik jaso dugunaz besteko atala ageri dela. Zehazki, honako hau adierazten da orain: *"**Ordainketa hori adierazitako epean egiten ez bada, betearazpen-bidea abiaraziko da.** Gainera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun bihurtzen bada betearazpen-bidea hasi baino lehen, hileroko konpentsatuko zaio bere nominan lege ezarritako gehieneko zenbatekoa, zorra kitatu arte".*





Baina, esaten zen moduan, kasu zehatza itzultzeko betebeharra adierazi zuen ebazpenean, ez zen informazio hori jasotzen.

Egoera hipotetiko horri buruzko informaziorik ere ez zen jaso itzultzeko prozedura hastean; dokumentu horrek honako hau baino ez zuen adierazten prestazioak itzultzeko prozedurari buruz: *"Alegazioak aurkezteko epea igaro ondoren, Lanbidek behin betiko ebazpena emango du, eta haren berri emango zaio. Ebazpen horrek bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra adierazten badu, eskura dituen ordainketa-aukeren berri emango zaio, eta ordaintzeko gehieneko epea finkatuko da, bai eta egin beharreko hileko itzulketen kopurua eta zenbatekoa ere."*

Aitzitik, horri buruzko azalpen bat sartu zen Lanbidek une hartan itzultzera behartuta zeuden pertsonen ematen zien inprimakian, kuota jakin bat nominan konpentsatzea onar zezaten; xedapen horrek adierazten zuen administrazioak konpromisoa hartzen zuela prestazioak iraungi ondoren ordaintzeke zegoen zorra jakinarazteko. Zehazki: *"Nomina erabat konpentsatu aurretik prestazioa eteten edo iraungitzen baldin bada, interesdunari jakinaraziko zaio zorraren zer zenbateko duen ordaintzeke, eta hura ordainketa-gutun bidez ordaindu ahalko du, edo, bestela, ordainketa zatikatzeko eskatu."*

Kexagileak horri buruzko jakinarazpenik ez duela jaso esan du.

Hain zuzen ere, Arartekoak, Lanbidera igorritako bigarren informazio-eskaeran, jakinarazpen hori egin zen ala ez argitzeko eskatu zuen, bai eta, halakorik egon bazen, kexagileari ordaindu gabeko zenbatekoen berri emateko informazio-idazkiaren kopia bat ere, prestazioen titulartasuna amaitu ondoren; dena den, berriro ere, Arartekoak esan behar du ez dela horri buruzko informaziorik jaso.

4-. Hala ere, erakunde honek ondorioztatu du hobetzeko tartea dagoela enplegu erakunde autonomoaren jardunean. Egia bada ere itzultzeko betebeharra ebatzita zegoela eta irmo bihurtu zela kexagilearen prestazioa iraungi zenean, egia da, halaber, ebazpenean aurreikusitako itzultzeko modua, ordura arte kexagileak jasotzen zuen hileko kuotaren deskontua, ezin zela gauzatu; izan ere, jasotzaileak ez zituen betetzen diru-sarrerak bermatzeko errenta kobratzen jarraitzeko betekizunak bere bizikidetzaren unitateak lortutako laneko diru-sarrerak zirela eta.

Erakunde horrek interpretatzen du Lanbidek berriaz jakinarazi behar zuela interesdunaren diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedientearen ordaindu gabe geratu ziren zorrak borondatezko epean ordaintzeko moduari buruz; ez bakarrik aldi hartan nominan deskontua onartzeko formularioetan jasotzen zuen paragrafoaren bidez berriaz horretarako konpromisoa hartu zuelako, baizik eta, halaber, ez zuelako aldeztu aurretik beste xedapenik jaso aldeztu aurretik iraungitzeko eta itzultzeko prozedurari buruzko ebazpenetan, lehenengo fase honetan ez ordaintzearen ondorioei buruz.





Dakigunez, betearazpen-aldia abiarazteak, berehala, legearen aginduz, hasierako zorraren % 20ko errekarua sortzea dakar eta berandutze-interesen sortzapena hastea. Premiamenduzko prozeduran sortzen diren gastuak ere premiamenduaren kontura izango dira, kostu gisa.

Kasu zehatz honetan, lehen adierazi den moduan, enplegu erakunde autonomoak informazio gehiago eman eta ardura handiagoa erakutsiz gero, kexagilearen zorra ez handitzea lortuko zen, hasierako 16.312,75 eurotik 17.947,73 eurora, hain zuzen. Arartekoaren aburuz, zorra betearazpen-bidera igortzeagatik sortutako errekarua ez da egokia lehen adierazitako gabeziak kontuan hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Gasteizko Udalarari honako iradokizun hau egiten zaio:

#### Iradokizuna

Berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra betearazpen-bidera igortzea, eta, behin borondatezko bidean, kexagileari jakinarazpen bat bidal diezaiola zorra zatikatzea eskatzeko, borondatezko epean ordain dezan.

